

Jon Arretzek Toure ikertzailea protagonista duela idatzitako hirugarren eleberria da *Hutsaren itzalak*. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Behartsuenen bizimoduaren isla

Toure ikertzailearen sagako lehen bi nobelak baino «gordinagoa» da Jon Arretxeren 'Hutsaren itzalak'

Juan Luis Zabala Donostia

Toure ikertzailearen sagako hirugarren eleberria du Jon Arretzek (Basauri, Bizkaia, 1963) *Hutsaren itzalak*, baina sagan ohiko arriskuari izkin egin nahian idatzi du, nobela berria besterik gabe Toureraren sagako «beste nobela bat» izan dadin saihestu nahian. «Oso argi neukan nobela desberdinak izan behar zutela sagako guztiak, eta uste dut beren artean nahiko desberdinak direla orain arte ar-

gitaratu ditudanak», adierazi du Arretzek. Lehenengoa, *19 kamerara*, dokumentalagoa zen, eta Bilboko San Frantzisko auzoa bera zen pertsonaia nagusia. Bigarrena idaztean, 612 euro, umorearen alde egin nuen, pikareskarekin zerikusia daukan umore afrikarraren alde. Hirugarren hau, *Hutsaren itzalak*—nahiz eta baduen umorerako tarterik, hasieran batez ere—, gogorrera, gordinera eta beltzera da, dudu barik; trama landuagoa daukana, eta erritmo handienekoa.

Nahiz eta Toure ikertzaile edo detektibe-igarlea izan *Hutsaren itzalak* eleberriko pertsonaia nagusia, emakumeek ere «pisu handia» dute. Arretzek azaldu duenez, batez ere Toureren bizitzan garrantzi handia duten lau emakume:

Sira alabak, Sa Kene amoranteak, Mariam emazteak eta Uwa nigeriar prostituta gazteak.

Sira, Toureren alaba, Parisen bizi da, baina Euskal Herrira etortzeko da, aita bisitazera eta harekin egun batzuk pasatzera. Hendaian jartzen du hitzordua Sira, baina hitzordu horretara Tourek Sa Kene amorantea bidaltzen du, bera paperik gabekoa delako. Sira ez da agertzen hitzordura, eta horren inguruko azalpenik ez dute lortzen ez Sa Kene eta ez Tourek. Bien bitartean, Toureren emaztea, Mariam, Burkina Faso dago, Gorom-Goromen, senarrekina eta seme-alabekin elkartzeko aukeraren zain. Uwa nigeriar prostituta gazteak, berriz, Toure-ri laguntza eskatzen dio, ebatsi zioten—edo saldu zuten, ez baita-

go argi kontua—umea berreskuratzen laguntzeko.

Kritika soziala, «berez»

Traman planteatutako arazoak bitartez, hainbat gai jorratzen ditu nobelak. «Emakume trafikoa nola gauzatzen den ikusten da, zelan etortzen diren milaka emakume gazte Europara, mafiek ekarrita eta antolatuta, eta zer ibilbide gogorra daukaten emakume horiek honaino iristeko. Emakume horietako asko haurdun gelditutakoan abortatzera behartzen zituzten, lehenbailehen prostituzio lanean aritzeko, baina orain mafien arduradunak konturatu dira haien umeak ustiatuta askoz ere diru gehiago irabaz dezaketela. Batzuetan mafiek ume txikiak alokatu egiten dizkiete pateretan

datozen emakume gazteei, haiek umea dutela erakutsiz Europan sartzea errazago izan dezaten... Horrelako istorioak agertzen dira nobelan. Jeneralean, jende behartsuenaren bizimodua eta istorioak». Pertsonaia horiekin eta egotza horiekin, kritika soziala «berez agertzen da alde guztietatik», Arretzek dienez.



Argi nuen desberdinak izan behar zutela sagako nobela guztiak, eta orain artekoak hala dira»

JON ARRETXE
idazlea

Toureren egoera ere «penagarria» da. «Krisi hirukoitza daukala esan daiteke: Europako eta Euskal Herriko krisi ekonomikoa; Bilboko San Frantzisko auzoko krisi berezia, langabeziari eta ekonomiari buruzko datuak oso gogorrak direlako auzo horretan; eta horrez gainera paperik gabe jarraitzen du, sasi-abokatu batek iruzur egin diolako, beste immigrante askori gertatu ohi zaien moduan».

Eleberriaren zati batzuk lehen pertsonan kontatuta daude, Toure delarik kontalaria; beste batzuk, berriz, emakumeen gorabeheri buruzkoak, hirugarren pertsonan. Orainaldia eta lehenaldia ere tartekatzen dira nobelan. Hori guztia «erritmoaren alde» egin du Arretzek. Kokaguneei dagokienez, Bilboko San Frantzisko auzoak ez ezik, Hendaia eta Baionak ere presentzia handia dute nobelan, eta baita Irunek ere, batez ere San Migel auzoak, «Bilboko San Frantziskoren antz handiena daukanak».

Toure pertsonaia gustuko du Arretzek, eta irakurleek ere gustuko dutela sumatzen da. Horregatik, saga bereko eleberri gehiago idazten jarraitzeko asmoa du. Liburuaren gaztelaniazko itzulpena ere argitaratu du Arretzek, *Sombros de la nada* (Erein), Kristina Fernandezek itzulia.

Burroughsen urterik ilunenak

'Naked Lunch'—en egilearen Mexikoko garaiari buruzko liburua aurkezten ari da Jorge Garcia-Robles AEBetan

Agentziak New York

William S. Burroughs idazle estatubatuarra (1914-1997) Mexikon eman zituen urteei buruzko informazio ugari eta zehatza ematen du Jorge Garcia-Robles idazle mexikarrak *The Stray Bullet*. Wi-

lliam Burroughs in Mexico liburua (University of Minnesota Press). Duela 19 urte argitaratu zuen liburu horren jatorrizko bertsoa, *La bala perdida*; *William S. Burroughs en México, 1949-1952* izenburuarekin (Milenio); orain ingelesezko bertsoa zeresan handia ematen ari da AEBetan.

Burroughs ezagutu zuenean izan zuen aurreneko sentimendua «dezeptzioa» izan zela adierazi du Garcia-Roblesek *The Stray Bullet*. *William Burroughs in Mexico* aurkezteko New Yorkeko Mexikar Institutuan egindako hi-

tzaldian. «Droga nahiz alkohol mendekotasuna zuen, baina oso artista diziplinatua zen, Jack Kerouac ez bezala», Garcia-Roblesen oroitzapenen arabera. «Oso gogor egiten zuen lan egurtean, eta bazkalondan hasten zen marhuana erretzen eta bestelako drogak hartzen».

Jakina denez, Mexikoko urteetan hil zuen Burroughsek Joan Vollmer, bere emaztea, 1951n. Horregatik ez zuen nahi izaten, Garcia-Roblesek dioenez, Mexikon emandako urteei buruz hitz egiterik.

Patxi Zubizarretak irabazi du Zarate saria

Elkar argitaletxeak udazkenean kaleratuko du lan saritua, 'Mundua baloi batean' gazte literaturako eleberria

Eredakzioa Bilbo

Patxi Zubizarretak irabazi du Lezamako Udalak era Elkar argitaletxeak antolatutako Mikel Zarate haur eta gazte literaturako sa-

ria, *Mundua baloi batean* nobelarekin, «bere idazketa eder eta abilaigatiko», Leire Bilbao, Miren Agur Meabe eta Antxiñe Mendizabalek osatutako epaimahaia adierazi duenez. Umeen futbol partida bateko pasadizoa eta mutiko protagonista zaintzen dauden aingeruak nahastean ditu konaketak, fantasia eta errealitateak uztartuz. Zubizarretak 3.000 euroko saria jasoko du, eta lan saritua Elkarrek kaleratuko du udazkenean. Orotara, 23 lan lehiatu dira.